



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **UDALBATZARRAK 2012ko EKAINAREN 26an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2012ko ekainaren 26an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Jose Ramon Hernandez Cristobal  
Ainara Sarasola Arsuaga  
Uxue Etxebeste Eizagirre  
Koldobika Jauregi Zinkunegi.  
Ainara Zurutuza Ilundain

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
  - 2012ko maiatzaren 23an egindako ez-ohiko bilkuraren akta.
  - 2012ko maiatzaren 29an egindako ohiko bilkuraren akta.
  - 2012ko ekainaren 14an egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. 2012 urterako Udal langileen egutegiaren onespena, hala bada.**
- 5. 2012 urterako Ur hornidura eta zabor tasen hobariak eskatzeko deialdiaren onespena, hala bada.**
- 6. Kutxabank S.A., aurkeztutako altxortegiko kredituaren proposamenaren onespena, hala bada.**
- 7. 2011ko Kontu Orokorraren behin betiko onespena, hala bada.**
- 8. Alkizako Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapenaren behin-betiko esleipena, hala bada.**
- 9. Maitegi etxearen inguruko bordaren teilatuan konpontze lanak**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- egiteko baimena eskaera, J.M.G.  
10. Saletxe baseritik etxe azpiko terrenoraino ur zikinen tubo  
pasatzeko herri bidea zeharkatzeko baimena eskaera, A.G.A.  
11. Beste batzuk.  
12. Erregu, galdera eta mozioak.

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA** **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2012ko maiatzaren 23ko ez-ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- 2012ko maiatzaren 29ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- 2012ko ekainaren 14ko ez-ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARREN PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

13/2012 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 7koa, S.R. andrearen aurka irekitako zigor-espedientea bertan behera uztea, ebazten duena.

14/2012 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 7koa, Beleburupe Guraso elkarteak eginiko eskaera onestu, hau da, ekainaren 9an frontoia, mahaiak, aulkiak eta musikako ekipoa erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

15/2012 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 7koa, Beleburupe Guraso elkarteak eginiko eskaera onestu, hau da, San Juan Sua herriko plazan egiteko baimena ematea, ebazten duena.

16/2012 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 18koa, Alkizako Udaleko 2012 urteko lehenengo seihilabeteko zabor tasaren udal errolda onartzea, ebazten duena.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

17/2012 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 26koa, enplegu planaren azterketa egiteko diru-laguntzaren eskabidea egiteko ardura Tolosako Udalari ematea eta enplegu planaren azterketaren lan teknikoa egiteko ardura Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziari ematea, ebazten duena.

### **HIRUGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- BRUEAU	173,53€
- KEY-LAN	100,24€
- SASURLA	311,94€
- IZADI	4.579,24€
- ELECTRICIDAD ZIZURKIL	485,22€
-ARGITU ASESORES	133,52€
- IZADI LABORATEGIA	145,14€
-GALPARSORO INDUSTRIAL	163,04€
-MGS SEGUROS Y REASEGUROS	2.400,42€
-MGS SEGUROS Y REASEGUROS	494,70€
- REPSOL GAS	208,60€
- REPSOL GAS	184,48€
- REPSOL GAS	93,37€
- REPSOL GAS	262,37€
- REPSOL GAS	310,59€
- REPSOL GAS	463,60€
- REPSOL GAS	420,52€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **10.930,52** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

### **LAUGARREN PUNTUA** **2012 URTERAKO UDAL LANGILEEN EGUTEGIEN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Udal langileak aurkeztu dutela 2012 urterako lan eta opor egutegiak.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Udal langileak aurkezturiko 2012 urterako egutegiaren onespena.

**BOSTGARREN PUNTUA**

**2012 URTERAKO UR HORNIDURA ETA ZABOR TASEN HOBARIAK  
ESKATZEKO DEIALDIAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Ur-hornidura eta zabor taseen hobariak emateko kudeaketa arauak prestatuak daudela, deialdia ateratzeko garaia iritsi delarik.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- 2012 urterako ur-hornidura eta zabor taseen hobariak eskatzeko deialdiaren onespena, uztailaren 27 arte izango delarik.

BIGARRENA.- Erabaki hau jendaurrean jartzea.

**SEIGARREN PUNTUA**

**KUTXABANK S.A. AURKEZTUTAKO ALTXORTEGIKO KREDITUAREN  
PROPOSAMENAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako Udalak interesa duela, Eusko Jaurlaritzak Udal honi esleitutako diru-laguntza baten barruan, Ernio Gazume Kontserbazio eremu bereziko gunearen barruan dauden terrenoak erosteko.

Ikusirik Alkizako Udalak aipaturiko inbertsio horri aurre egiteko KUTXABANK, S.A.ri 56.000,00 eurotako altxortegiko-kreditu bat eskatu diola.

Ikusirik Kutxabank S.A., Alkizako Udalari egin dion proposamena 56.000,00 eurotako altxortegiko-kreditua emateko, ondorengo delarik:

- ESKAINTZEN DEN KOPURUA: 56.000,00euro
- EPEA: Sinadura datatik kontatzen hasita urtebete
- AMORTIZAZIOA: Mugaegunear
- INTERES-TASA: Aldakorra, urteko EURIBOR-a gehi %3,50 puntuko diferentziala. Kalkulo oinarria 360 egun



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- INTERESEN LIKIDAZIOA: Hiru hilabetetik behin
  - ALDAKETAKO EPEALDIA: Hiruhilekoa
  - BIRIBILTZEAREN ERAGINIK HANDIENA: Ez dago biribiltzerik
  - IREKIERA KOMISIOA: % 0,5
  - ERABILTZEAGATIKO-KOMISIOA: Erabili gabeko saldoengatik % 0,15 hiru hilean behin.
  - AURREZ KITATZEAGATIKO KOMISIOA: Komisiorik gabe
  - BERMEA: Udal finantzaketako Foru Fondo Funtsa
  - NOTARITZA ARTEKARI GASTUAK: Artekari gabe
- Interesak hiruhilero sortzen dira, honako formula hau jarraituz:  
 $I=C.r.t./36.000$ , non:  
 $C$ =Epe barruan erabilitako Kapitala  
 $r$ =interes nominala  
 $t$ =likidatutako aldiaren egun naturalak

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: KUTXABANK, S.A, Alkizako Udalari egindako 56.000,00 eurotako altxortegiko-kredituaren eskaintzaren onespena, goian aipatzen diren baldintzekin.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakari jauna ahalmenu, KUTXABANK, S.A., Alkizako Udalari egindako 56.000,00 eurotako altxortegiko-kredituaren eskaintza formalizatu eta bere esku jartzeko.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri KUTXABANK, S.A-ri ematea.

#### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

#### **2011KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundeen Aurrekontuari buruzkoak, 62 eta hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraituz, Kontu Orokorra egin dela, ekitaldiko aurrekontuari buruzkoa, aparteko aurrekontuari nahiz ondasunei eta diruzaintzari buruzko operazio guztien adierazgarri dena. Kontuetako Batzorde Bereziaren txostena lortu ondoren, jendaurrean egoteko tramitean jarri dela, 2012 urteko ekainaren 4an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz erreklamaziorik, konponbiderik edo oharpenik aurkeztu ez delarik.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik espediente osoa Udalbatzarraren ezagupenean jarri dela.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Udalbatzarreko Lehendakariak emandako 2011 ekitaldiko Kontu Orokorra onestea.

#### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

#### **ALKIZAKO HERRI OSTATUAREN ERRENTAMENDU ETA USTIAPENAREN BEHIN-BETIKO ESLEIPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2012ko ekainaren 14ean egindako Udalbatzarrean Alkizako Herri ostatuaren errentamendu eta ustiapenaren behin-behineko esleipena I.V. eta D.L. jaunei eman zitzaizela.

Ikusirik Udaletxe honetan aurkeztu dutela Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Alkizako Udalarenak kitaturik dituela ziurtatzen duten dokumentuak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA.-. I.V. eta D.L. jaunei Alkizako Herri Ostatuaren errentamendua eta ustiapena behin betikoz esleitzea (proba moduan), sei hilabetez, 2012 ko ekainaren 29tik 2012ko abenduaren 31arte, bi alderdien adostasunarekin 5 urte arte luzatu daitekeena.

BIGARRENGOA: I.V. eta D.L. jaunei jakinarazi Alkizako Udalera bertaratu beharko dutela dagokion kontratua sinatzera. Kontratua sinatu aurretik, Erantzukizun zibileko aseguruaren kopia aurkeztu beharko dute.

HIRUGARRENGOA: Alkate-Lehendakaria ahalmenu dagokion kontratua sinatzeko.

LAUGARRENGOA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

#### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

#### **MAITEGI ETXEAREN INGURUKO BORDAREN TEILATUAN KONPONTZE LANAK EGITEKO BAIMENA ESKAERA, J.M.G.**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik J.M.G. jaunak eginiko eskera, non, Alkizako Maitegi etxearen inguruko bordaren teilatuan konpontze lanak egiteko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Udal Aholkulari teknikoak, 2012ko ekainaren 21ean eginiko txostenean dioena:

**“ALKIZAKO MAITEGI ETXEAREN INGURUKO BORDAREN TEILATUAN KONPONTZE LANAK EGITEKO ESKERARI BURUZKO TXOSTENA**

*J.M.G.U. jaunak, Maitegi etxearen inguruko bordaren teilatuan konpontze lanak egiteko baimena eskatzen du, lanen aurrekontua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:*

*Aurkeztutako aurrekontuaren arabera, Maitegi bordaren teilatuaren konponketa, gaur eguneko teila eta oholak, baserriko teila mistoa bezalako batez eta izei egurrezko tarimaz ordezkatzeari izango da. Lan hauen kostua BEZ-a gabe 9.552€-koa da.*

*Hiri antolaketako 6.4. artikulua arabera, egun dauden mota guztietako eraikinen kanpoaldeko itxuraren aldaketek hirigintza lizentzia behar dute.*

*Maitegi etxea eta borda Alkizako lur-hiritargarran kokaturik daude, bereziki UEU 3 unidatean. Alkizako arau subsidiarioen arabera eraikinek ez dute inolako katalogazio edo babes berezirik.*

*2003-ko urriaren 27-ko Alkizako Hiri Antolaketako Arauen Aldaketaren Maitegi UEU 3 unidatearen fitxaren irizpide eta helburua, egungo eraikuntza mantentzea da, eraikuntzaren gaur egungo baldintzak mantentzen direlarik.*

*Beraz, aurkeztutako lanak Alkizako araudiarekin bat egiten dutenez, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.*

*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde behar dira.”*

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENEA: J.M.G.U. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Maitegi etxearen inguruko bordaren teilatuan konpontze lanak egiteko obra baimena eskaera onestea.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

### **HAMARGARREN PUNTUA**

**SALETXE BASERRITIK ETXE AZPIKO TERRENORAINO UR ZIKINEN TUBOA PASATZEKO HERRI BIDEA ZEHARKATZEKO BAIMENA ESKAERA, A.G.A.**

Ikusirik A.G.A. jaunak eginiko eskaera, non Saletxe baserritik etxe azpiko terrenoraino ur zikinen tuboa pasatzeko herri bidea zeharkatzeko obra baimana eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

### **ERABAKITZEN DUTE:**

LEHENA: A.G.A. jaunak eginiko obra baimena onestea, hau da, Saletxe baserritik etxe azpiko terrenoraino ur zikinen tuboa pasatzeko herri bidea zeharkatzea, betiere kontutan izanik herri bidea beste herritar batzuek erabiltzen dutela, egin behar duen lanak ahal duen epe laburrean egitea inor kaltetua izan ez dezan.

BIGARRENA: Zeharkatu behar den herri bidea, lanak egin aurretik zegoen egoera berean uztea.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri interesatuari ematea.

### **HAMAIKAGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

#### **11.1. 2013. URTERAKO ALKIZAKO JAI EGUNA IZENDATZEA, HALA BADA**

Ikusirik Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte gaietako Sailaren 75/2012, DEKRETUA, maiatzaren 15koa, Euskal Autonomi Erkidegoko langileen 2013 urteko jaiegun ofizialen egutegia onartzen duena.

Ikusirik egutegia osatzeko Udalek Tokiko Jai eguna proposatu beharra dutela.





ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik Alkizako jaiegun ofiziala irailaren 8<sup>a</sup> izaten dela, Amabirjinaren jaiotze eguna, 2013 urtean igandea denez, irailaren 9ra pasatzea proposatzen da.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENA.- 2013 urterako Alkiza Udalerriko jaiegun bezala ondorengoa finkatzea:

- Irailaren 9 astelehena.

BIGARRENA.- Akordio honen berri ematea Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari.

### **11.2. ANTZIETA BASERRI ONDOKO PABILOI ONDOAN TXAKURREN TXABOLARI ITZALA EGITEKO TABLERUAK JARTZEKO BAIMENA ESKAERA, J.R.E.**

Ikusirik J.R.E. jaunak eginiko eskaera, non Antzieta baserri ondoko pabiloi ondoan txakurren txabolari itzala egiteko tableruak jartzeko baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: J.R.E. jaunak eginiko baimena eskaera onestu, hau da, Antzieta baserri ondoko pabiloi ondoan txakurren txabolari itzala egiteko tableruak jartzeko baimena eskaera onestea.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

### **11.3. BIDA TEKNOLOGIAREN BIDEZ EGINDAKO HERRIKO ONDAKIN URAK ARAZTEKO PLANTAN ATERATZEN DIREN UREN ANALISIA BIDATEK INGENIERIA AMBIENTAL S.L. RI ESLEITZEA**

Ikusirik Bida teknologiaren bidez egindako herriko ondakin urak arazteko



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

plantatik ateratzen den ura ez dela analizatzen.

Ikusirik Bidatek Ingenieria ambiental S.L. ri eskatu zaiola ur araztegitik ateratzen den ura analizatzeko aurrekontu bat ,gutxi gora behera, 120 euro izanik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Bida teknologiaren bidez egindako herriko hondakin urak arazteko plantatik ateratzen den uraren analisiak egiteko Bidatek Ingenieria ambiental S.L. ri esleitzea.

#### **11.4. EUSKALTEL-ek EGINIKO ESKAINTZAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako Udalen dauden Telefonoak VODAFONEkin daudela. 2011ko irailean eginiko eskeintza bat medio, eta gastuak murrizteko asmoarekin telefono finkoak eta mugikorrak VODAFONE-rekin jartzea erabaki zen.

Ikusirik hainbat arazo izan ditugula VODAFONErekin, bai harreta eta baita bere garaian eskeinitako tarifekin.

Ikusirik EUSKALTEL-ek egiten digun proposamen ekonomikoa telefonoak berarekin edukitzeagatik, gastuak murrizteko aproposa dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Alkizako Udalak Telefono mugikorrak eta finkoen kontratuak EUSKALTEL-rekin izateko onespena ematea.

#### **HAMABIGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ondorengo mozioa aurkezten da:

*“ Tolosaldea Garatzenentzat 2011ko Espainiako aurrekontuetan izendatuta zegoen diru partida Espainiako Gobernuak ekar dezan.*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

#### OSOKO BILKURAN BIDERATZEKO ARRAZOIA:

*Tolosaldea Garatzenek eskualdeko enpresak laguntzen eta berrikuntzako proiektuak sustatzen urteak daramatza. 2011.urtean hitzartuta zegoen miloi bateko euroko partida izendua ez da iritsi eta, bere orde, Espainiako Gobernuak ikerkuntza, Berrikuntza eta Garapeneko Estatuko Idazkariaren faxa helarazi du. Diru-laguntza izendu hori ezinbestekoa da 2012an LEHIBERRI ZENTROAREN eraikitze fasea eta berarekin dakarren eta martxan dagoen berrikuntzako proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko. Partida izendu hori berehala jaso ezean, proiektuen bideragarritasun ekonomikoa kolokan geratuko da.*

*Guzti hau kontutan harturik, Udalbatzak onar dezan ondorengo proposamena egiten da:*

*1.-Alkizako Udalak Tolosaldea Garatzenek azken urteetan berrikuntzaren alde egindako lana goraiatzeko eta bide horretan sakontzen jarrai dezala eskatzen dio.*

*2.-Alkizako Udalak Espainiako Gobernuari hitzartuta zeuden partida izendua Tolosaldea Garatzen-eri helaraztea eskatzen dio. Beraz, Espainiako Gobernuari bere kabuz eta inongo adostasunik gabe hartu berri duen erabakia atzera bota dezala eta izendatuta zegoen dirua lehen bai lehen ekar dezala eskatzen dio.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:

**BAKARRA:** Tolosaldea Garatzenentzat 2011ko Espainiako aurrekontuetan izendatuta zegoen diru partida Espainiako Gobernuak ekar dezan mozioa bere osotasunean onestea.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.35 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)